

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko azaroaren 3a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • EGUNKARIAK antolatuta, Iruñea Hiria I. Herri Krosa egingen dute igandean

Iñigo Petri • «Natura salgai dago»

Euskalerrria Irratia,

• OSKAR MONTERO



Osasunarekin primeran

Nafarroako euskarazko irratigintzan mugari berria ezarri du Euskalerrria Irratiak.

Osasuna futbol taldeak Sadarren jokatzen dituen partida guzien emankizunak eskainiko ditu Iruñerriko irratia. Hasi berriak dira, eta euskarazko eredua falta bazaie ere, gogotsu ari dira, primeran, eta eurek sortuko dute eredu hori.



• OSKAR MONTERO

Iruñea ●

EGUNKARIArekin lasterka

Iruñea Hiria I. Herri Krosa eginen dute igandean hiriburuan

Egunkariaren Lagunak kultur elkarteak antolatuta, Euskal Herriko Kros Herrikoien Txapelketako azken proba izango da.

IRUÑETIK ATERAKO DA Euskal Herriko herri krosen txapelduna. Bilboko, Baionako, Donostiako eta Gasteizko krosen ostean, Iruñean igandean eginen dute akabera emanen dio Euskal Herriko txapelketari. Zenbait lasterkari txapelaren bila abiatuko dira Gaztelu plazako irteeratik, baina igandeko krosa herrikoia da, eta 16 urtetik goitiko edonork parte har dezake. Nahikoa sari izanen da 7,7 kilometroak bukatzea.

Egunkariaren Lagunak kultur elkarteak ordezkarik Kike Zurutuzak azaldu duenez, «EGUNKARIAK interes handia du euskara eta kirola uztartzeko, eta horregatik antolatzen ditu kirol ekitaldiak EGUNKARIA zabalitzen den esparru geografikoan». Horren kariatara dator kros txapelketa hau. Euskara eta kirola uztartzeko nahi horretan, txapelketa honetatik ateratzen diren etekinak Hazparneko eta Baionako ikastolentzat izanen dira.

Duela bi urte lehen saio bat egin zen, baina Iruñeko eta Gasteizko krosak ez ziren ongi atera. Aurtengo emaitza bestelakoa izatea espero dute. Izan ere, Gasteizko krosan 250 bat lasterkarik parte hartu aurren. Iruñeko parte-hartzea ere ona izatea espero du Zurutuzak.

Hiru baldintza txapela eramateko

Txapelketa irabazteko hiru baldintza daude: Hazparnetik Baionara errepide zaharretik doan Kaskoz kasko krosak bikoitza balio zuen, 24 km dituelako. Horrek erran nahi du, txapelketa irabazi nahi duen edonork han puntuatu behar zuela. Bigarren baldintzak dio Iruñeko ezinbestean korritu egin behar dela. Hirugarrenak ezartzen du bost probetatik gutenez hirutan hartu behar dela parte.


Herri krosen txapelketa honen jarraitzeko asmo sendoa dago, baina, lehenbizi, aurtengo aldia bukatu behar da. Igandean izanen da, Iruñean. Hitzordua 11:00etan da, Gaztelu plazan. Handik abiatuko dira lasterkariak. Alde Zaharreko karraketan zenbait itzuli eman ostean, Arrotxapera jaitziko dira, eta gero, Labrit aldapatik itzuliko dira Gaztelu plazara.

Gaur da izena alde aurretik emateko azken eguna; Atanasio kirolak, Zariquiegui kirolak edo EGUNKARIAren ordezkaritzan egin daiteke. Bestela, igandean bertan eman daiteke izena Gaztelu plazako irteeran. Parte-hartzaileei elastiko bat oparituko zaie, eta hainbat bidaia zozketatuko dira denen artean.

→ Asier Azpilikueta

Iruñea Hiria I. Herri Krosa (7,7 km)

- Ibilbidea**
- 1 Irteera Gaztelu plazan, Xabier karrika ondoan, plazari itzulia eman
 - 2 Carlos III. etorbidetik atera, Merindadeen plaza buelta eman eta berriz Carlos III. etorbidetik
 - 3 Gaztelu plazari itzulia eman
 - 4 Sarasate pasealekua eta Navas de Tolosa kalea
 - 5 Kale berria
 - 6 San saturnino eta kale Nagusia
 - 7 Gipuzkoa etorbidea eta Curtidores
 - 8 Errotazar kalea
 - 9 Pompeto plaza
 - 10 Vergel kalea
 - 11 Labrit frontoia
 - 12 Estafeta
 - 13 Txapitela
 - 14 Gaztelu plaza
 - 15 Sarasate pasealekua. Buelta eman Audentza zaharren, sarasatetik itzuli
 - 16 Helmuga Gaztelu plazan



A. PEÑALBA

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Bizitza eta literatura

«Ea, har itzazue papera eta boligrafoa, eta idatzi narrazio txiki bat, non, bi animalia ezberdin eredutzat hartuz, ongi adierazi behar duen zertan den bizitza, betiere, borroka ikuspegitik hartua», esan zuen irakasleak, eta baita hola jarraitu ere, «hori da-eta literaturaren funtsetako bat, ustez zerikusirik ez duten bi elementu harturik, berauek erlaziopean jartzearena, alegia; begi eta belarrirako zerbait gozo sortarazteko asmoz. Aupa, ekin lanari». Irakasleek zintzo bete zuten agindutakoa, eta narraziook amaitutakoa... «Ea, Fátima—adierazi zuen irakasleak—, jarri zaitetzutik eta irakur lezaguzu zeure kontakizuna, arren».

Eta Fátimak honako kontakizuna irakurri zuen soinu bizian: «Niretzat tximeleta eta listorra dira borrokaren ideia hobekien adierazten duten animaliak. Bizitzan, gure eguneroko bizitzan, tximeletaren antzera jokatu beharko genuke; izan ere, tximeleta zalapartarik egiteke bizi delako. Lorez lore joaten da dotore-dotore, apaltasunez betea, inor molestatu gabe. Inork aditu al du, akaso, ze hots-klase egiten duen tximeletak hegialak astintzerakoan? Ez horixe! Tximeleta otzana delako; ez da borrokazalea, bakezalea baizik. «Nire bigarren animalia—jarraitu zuen Fátimak—listorra da. Listorra, aitzitik, borrokalaria aparta da, eta

eztena sartu behar baldin badu, maiz egiten duena, ba... barruraino sartuko dizu, gupida gabe gainera, ezerk beldurtzen ez duelako. Bestalde, erlea ez bezala, listorra ez da galtzen eztena barruraino sartu arren, eta bigarren ere saiaturiko da ziztatzen, tematia delako. Listorra, finean, hagitx oldartzalea baita, borrokalaria sutsua. Laburbiltze aldera: mugi gaitzen tximeleta bezala; zizta dezagun listorrek bezala». Eta puntu honetan eseri zen neskatikoa. Irakaslea sor eta lor geratu zen; gelako kideak, berri, jo eta ma. Urte batzuk igaro ondoren, eskolatik kanporatu zuten Fátima, neska arraroa zelakoan.

Baztan • Kirikoketa besta



Jo Ala Jo elkarteak txalaparta jotzen ikasi zuten, eta, hortik abiatuta, sagardoa egiteko antzinako moduan beste perkusio tresna bat aurkitu zuten, kirikoketa. ● GARI GARAIALDE

Mazen soinua berriro entzungo da Baztango herri batzuetan

Sagarra biltzen egun ugari eman ondotik, orain heldu da fruituak dolarera sartu eta mazekin zanpatzeko garaia. Hiru lagun artean lan hori ohol baten gainean egiten denean, soinu berezia ateratzen da: KI-RI-KO-KE-TA.

JO ALA JO ELKARTEKO KIDEAK eta Erratzuko kultur elkarteak bigarren urtez jarraian ospatuko dute Baztanen kirikoketa besta. Lehen, sagardoa egiteko garaia iristen zenean, baserri askok zuten dolarea, sagarra sartu, zanpatu eta prensatzeko. Maza luze eta pisutsu batzuk erabiltzen zituzten lan gehiena egiteko, eta orduko base-ritar gutxi usteko bazuten ere, beren lan tresna musikarako instrumentu bihurtu da. Txalaparta ikasteari ekin

zioten hasieran Jo Ala Jo elkarteak lagunek, eta hortik hasita, Patxi Larralde kidea beste arloetan ikertzen hasi zen, eta garai batean sagardoa egiteko erabiltzen ziren tresnetan oinarritu zen musika tresna bat sortzeko. Mazek oholetan, txalapartaren atzera jotzean soinu berezia ateratzen zutela ikusita, ikerketekin aurrera jarraitu zuen. Gaur egun bost gaztek dakite Kirikoketa jotzen, eta dagoeneko badabilza Euskal Herriko toki askotan soinu

ezezagun hau zabaltzen. Aurtengo kirikoketa bestarekin sagar biltzearen amaiera iragartzen da. Orain sagarra dolaretan sartu, zanpatu, prentsatu eta zukua lortzeko garaia dator. Azkenik, fermentazioaren garaia iritsiko da, eta zukua upeletan sagardo bihurtuko da. Festa egun

Elizondok plazan. Gaueko bederatzia eta erdietan, afaria eta kontzertua izanen dira Elizondoko Abastosko enparantzan. Besta egun honetarako, Jo Ala Jo elkarteak eta Erratzuko Kultur elkarteak 100.000 pezetetako aurrekontua daukate. Laguntzaileak ere izan dituzte, besteak beste Baztango Udala, Esarte Harategia, Ordoki Likoreria, Larralde Sagardotegia eta Baztan-darren Biltzarra elkarteak.

→ Rakes Goñi



herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

Haurrak sortzeko laguntzak

Nafarroako Gobernuak bi haur baino gehiago dituzte gurasoei laguntzak emateko Foru Dekretua onartu zuen joan den udan, eta gai horren inguruan osatu du erreportaia **Ttipi-ttapak** kazetari Asier Gogortzak azken zenbakian: «Gobernuak onartu berri duen legearen bidez lana eta familia bateragarriak egin nahi dituzte. Bi modutakoak izanen dira laguntzak: bigarren seme-alaba sortzen delarik 55.000 pezeta (2.200 libera) hilabetero, haurrak urtea egin arte; eta jaio dena hirugarrena baldin

bada, diru berdina hiru urtez. Baina dirulaguntza hauek jasotzeko baldintza bat bete behar da nahitaez, bi gurasoek behin-betiko kontratua izatea, alegia, eta bietako batek urte bateko edo hiru urteko eszedentzia eskatzea lanean».

Hainbat gurasoren iritzia jaso du **Ttipi-ttapak**, tartean, Sarako Bittori Daintziartena. Saran laguntzak aspalditik hartzen dituzte. «Hiru seme ditut eta bigarrena izan nuenetik hasi nintzen laguntzak hartzen. Bi haurrentzat 700 liberatik goiti ematen dute

(17.500 pezeta), eta hirurentzat antxu 1.500 libera (37.500 pezeta) hilabete-an. Hiru haur baino gehiagoko familia guti da hemen, baina hirurekin franko poliki. Laguntza ongi da, baina ez da dena. Badugu aukera bat, bigarren haurretik aitzinera, lana utzi eta etxean hiru urtez egoteko. Hilabetean 3.000 libera (75.000 pezeta) ematen dauzkigute hiru urte hoietan. Gero lana atxikitzen duzu berriz. Nik bigarren eta hirugarren semeekin egin dut hautu hori», azaldu du Daintziartek **Ttipi-ttapan**.

hau bihar goizean hasiko da; hamarretan, kirikoketa jotzea egingen da. Lekarozko Larralde sagardotegian, Erratzun, Arizkun eta Amaiurren. Ondotik, ordu bietan Arizkungo Gamioxarrea etxeko dolareari bisita egingen zaio, eta sagardoa egiteko modu tradizionalari buruzko erakusketa ikusgai egonen da. Arratsaldean, Elizondora mugatuko dira ekitaldi guztiak. Bostetan, herriko plazan sagar zanpatzeari ekingo zaio. Hortik aterako den zukua ikusleei emanen zaie. Eguna alaitzeko txistulariak eta dantzariak egonen dira. Txalaparta jotzen ibiltzen diren Aranoko, Leitzako eta Baigorriko taldeak ere arituko dira

Elizondok plazan. Gaueko bederatzia eta erdietan, afaria eta kontzertua izanen dira Elizondoko Abastosko enparantzan.

Besta egun honetarako, Jo Ala Jo elkarteak eta Erratzuko Kultur elkarteak 100.000 pezetetako aurrekontua daukate. Laguntzaileak ere izan dituzte, besteak beste Baztango Udala, Esarte Harategia, Ordoki Likoreria, Larralde Sagardotegia eta Baztan-darren Biltzarra elkarteak.



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Paisajelogia laburtua

Bexikulas mozkortua dago eta desageritutako paisaje bati buruz ari da. «Inork ez daki nolatan baina paisajeak galdu, galdu egiten dira eta gehienetan... betirako! Egun batean mendia zure etxe aurrean dago eta hurrengoan... jai!, desagertu da!, alde egin du!, hori da la ostia! Eta kontrakoa ere gertatzen da, noski, egun batean etxetik atera eta zas!: mendi bat!, batek daki nondik berragertu!, berraurkitu! Eta hau la ostia da ere!». Eta hemen barran kolpea ematen du, isurritako garagardo baten gainean eman ere, eta aurpegi zipristin batzuk sentitzen ditut. «Paisaje honi dagokionez –segitzen du Bexikulasek– bere Desagerketa Eguna-ren zehastasun guztiak ditugu. Bilbon izan zen. Labe Garaietarako zehazki ez dakit zer letxe egin behar zutela-eta lurzoru batean ibili ziren obretan. Baina hilabetea osatzeko zegoenean, zas!, dena desagertu zen!, dena!: Mugitutako lurra, lurzorian egindako zulo erraldioa, bertara jaisteko aldapa, dena!». Berriz ere kolpea eta zipristina. «1933an izan zen. Lurra ukitu gabe bezala agertzen zen, laua, belarra eta guzti. Gure artean, Paisajelogen artean, non berragertuko ote zen eztabaida sortu zen. Batzuk zioten itsasazpian betiko desager-tua egongo zela... baina nik ez. Nik beti uste izan dut lurrazpitik deriban ibili izan dela; eta hara non, gaur, Auditoriumeko obrak ikustera joan naizela eta, zas!, segituan ezagutu dut! Hortxe zegoen Bilboko Paisaje Desagertua! Argazki zaharretan agertzen den igual iguala!». Nik baietz beti, baina Bilboko Paisaje bat aurkitzea munduko gauzarik hunkigarriena ere ez zaidala iruditzen esaten diot. Bexikulas hori entzun eta beste kolpe bat (bere zipristinekin) ematen du «Horixe ez dela garrantzitsua!», esaten du, eta gero behatza begi ondoan jarrita: «Baina zaude Xabi, zaude, zeren orain dator benetan garrantzizkoena. Berragertutako Paisaje honek zera adierazten du, galdutako Paisajeen lurpeko ibai bat hortik igarotzen dela». Orduan folio erdiko marrazki zahar bat ateratzen du Bexikulasek. Greziako tenplu zahar baten marrazkia. Tenplu eder-rra. «Paisaje hau Kristo aurreko bigarren mendean Desagertu zen» –dio Bexikulasek–, nere ustez Bilboko Paisajearen azpian dago». Eta, irrifartsu, marmorezko zati ezin txurriago bat atera du txupatik.

Euskarazko irratia, primeran



Euskalerrria Irratiak ahalegin nabarmena egin du Osasunaren partiden emankizuna eskaintzeko. Sadarren hiru lagun izan ohi dira (esatariki eta teknikoak), eta Irrintzi dorreko estudioetan beste bi (esataria eta teknikoak). ●OSKAR MONTERO

ARRATSALDEON SADAR FUTBOL zelaitik. Arratsaldeon zer edo zer esatearren. Argi dago gure Euskal Herri hau atzeraka dabilela bakegintzari dagokionez; argi dago euskararen etorkizuna Nafarroan kolokan ere egon daitekeela Gobernuak iragarri dituen azken neurriak direla eta; eta hori guziori guti balitz bezala, aste honetan jakin dugu Miguel Indurain, kirolean Nafarroako ikur izandakoa, nonbait, dopatu egiten zela. Nolanahi ere, entzule maiteok, beti geratuko zaigu Paris, eta beti geratuko zaigu Osasuna.

«Gauzak horrela, hemen gaituzue baikor Valentziari, Espainiako Lehen Mailako liderrari, aurre egiteko prest. Eta horretarako, ohiturari jarraiki, talde bikaina osatu du Euskalerrria Irratiak: 1 zenbakiarekin, Irrintzi dorreko estudioetan, lemadun lanetan, Unai Monasterio (txaloak); 2 zenbakiarekin, taldeari esperientzia emanen dion eskarmentu handiko gizona, Kike Diez de Ultzurrun (txaloak); jada Sadarko harmailetan teknikari lanetan, eta zenbait komentario egiten dituen, Ibon Olagarro Gaztanbide (txaloak); laugarren zenbakiarekin, Iratz Orojakile Arregi (txaloak berandu sartzen dira). Tira, zaleak zalantzan ibili dira, txalotu edo ez txalotu, ez dakit

Euskarazko futbol emankizunen eredurik ez dutela diote. Akaso, beraiek sortuko dute eredu hori. Euren estiloa lantzen ari dira bederen. Lakastak, atezainak ateko sakea egiten duelarik, honakoa botatzen du beti: «Gora baloia, gora Iruñea, gora Osasuna, gora Nafarroa, gora Euskal Herria!».

azken kontakizunean zer egin zenuen. Eta, azkenik, bosgarren zenbakiarekin, ni neu, Juan Kruz Osotipojatorra Lakasta (txaloak).

Irratiaren irudian inbertitzea

Juan Kruz Lakasta eta Iratz Arregi esatarien ahotsetatik Osasunak sartzen dituen golak (eta sartzen dizkietenak) euskaraz entzuten ahal ditugu orain. Eurek ikusi zuten hori egiteko aukera, eta buru-belarri aritu ziren Euskalerrria Irrati gidariak konbentzitzeraino. Jakina denez, Euskalerrria Irratia irratitik da, hamabi urteko ibilbidearen ostean oraindik ez du lizentziarik ere, eta dirua ez du soberan. Halarik ere, ahalegina egin du euskalduneri Osasunaren partiden nondik-norakoak uhinen bidez helarazteko.

Telefonikaren sistemarik merkeena kontratatatu zuten 300.000 pezetan truke (12.000 libera), eta emankizunak erakartzen dituen iragarkiekin ordaintzea espero dute. Diruaz landara, inbertsioa bestelakoa izan da Kike Diez de Ultzurrun esatari veteranoak dioenez: «Irratiaren beraren irudian inbertitu dugu. Eta horretan asko irabazi da. Gauza izatea zer eta Osasunaren etxeko partidak emateko, horrek zer edo zer esan nahi du. Eta, gainera, kalitateko gauza da».

Tresnerian ez dute gastatu, aldez aurretik irratian zegoena baliatu baitute. Eta Telefonikako instalaziotik mikrofonoetara joateko operazioa irratiko teknikari batek konpondu du etxean asmatutako tresnatxo baten bitartez. Gainera, aipatzekoa da Lakasta eta Arregi esatariak musutruk ari direla Osasunaren emankizunetan ahotsa urratzen.

Baina gustura ari dira. «Ez dugu ohiko emankizuna egiten», erran du Lakastak. «Beste ukitu bat ematen diogu eta, gauzak horrela, nahiko produktu entzungarria eta erakargarria da, bai futbolzaleentzat, baita bestelako entzuleentzat ere». Lakastak eta Arregik egiten dutena futbol emankizunen parodia da ia.

Partida kontatu bai, baina umorez, ironiaz. «Hain zuten ere, niri proiektu honetan sartzeko bultzada eman zidan pentsatzeak ez zegoela hemen gazteentzako kirol programa freskorik», azaldu du Arregik. «Beste irratia batzuetan saiatu dira, baina, azkenean, betiko irratsaioa egiten dute. Euskalerrria Irratiak halako askatasuna ematen zigun programa fresko egiteko». Eta horixe egin dute.

Euskarazko ereduaren sortzen

Hasiera batean, Iratz Arregik ez zuen bere burua kapaz ikusten emankizuna egiteko. «Gure arazorik handiena da euskaraz ez dagoela zuzeneko emankizun luzerik», dio. «Eta nik behar ditut ereduak. Hiztegia oso urri gelditzen zaigu. ETBko erreferentziak ez dira onak, telebistakoak ez duelako balio irratirako. Eta Euskadi Irratian egiten dute karrusela, baina ez emankizun osoa. Erdaraz oso zabaldua dago jenero hau,

Osasunak Sadarren jokatzeko dituen partida guzietan emankizuna eskaintzen du Euskalerrria Irratiak

Aurten, Osasuna ez ezik, Euskalerrria Irratia ere Lehen Mailara igo da. Izan ere, Euskalerrria Irratiaren eskutik, Osasunak etxean jokatzeko dituen partida guzietan emankizuna entzuten ahal da FMko 91,4an Iruñerrian, eta FMko 107,0n Sakanan. Hasi berriak dira, eta euskarazko ereduak falta zaiela diote. Baina gogotsu ari dira, primeran, eta, akaso, eurek sortuko dute eredu hori.

Robinsonen paparra



ELACALLE

- JUAN KRUZ: Robinson jaunak zelaira salto egin du dagoeneko.
- IRATZ: Nahiko gizen ikusi dugu Robinson. Elastiko gorria jantzen zutenean bestelako gorpuzkera zuen.
- JUAN KRUZ: Ez horrenbeste, Iratz. Futbolari karrerako azken txanpa zoragarri hartan dagoeneko hainbat eta hainbat garagardo urdailertzen zituen.
- IRATZ: Saria jasoko du, bai elastiko gorria zeramanean bai ondoren Osasunarekiko maitasuna hedatu duelako.
- JUAN KRUZ: Hortxe dakusagu Robinson jauna Osasunaren

urrezko domina paparrean jasotzen; papar benetan ederra gizon honek urteen poderioz lortu duena. Hortxe, txalo zaparrada beroa jasotzen Robinson jauna. Hunkituta ikusten dugu hemendik. Bere begiek diridira egiten dute, bere urrezko dominak bezainbeste. Eta une batetik bestera, malako bihurriren batek ihes egin dezake Robinsonen begietatik, baita Iratz Arregiren begietatik ere. Zu ere hunkituta ikusten zaitugu, Iratz.

► IRATZ: Jendea zutitu da, eta ezin izan dut aulkian egon. Benetan memento hunkigarria izan da.

...eta GOLA!



EL SAIZ

- JUAN KRUZ: Oso falta arriskutsua izan daiteke. Area ertzean dago baloia. Hortik egiten dute jaurtiketa, hortxe izan baita falta. Eskuinaldetik pare bat metro zentratuta. Oso falta arriskutsua izaten ahal da Osasunaren alde.
- KIKE: Lankideok, argi ikusi da falta area ertzean izan dela, baina kanpoan. Beraz, ongi adierazia, ez da penaltia izan.
- JUAN KRUZ: Mila esker, Kike. Alex Fernandez falta sumatzen dugu, baina bestelako jaurtitzaileak ere baditu Osasunak. Hortxe ikusten ditugu Angel eta beste norbait,

hemendik ez dut ikusten.

► IRATZ: Yangüas hor dabil. Mateo ere baloiarekin, berak jaurti eta, GOLA, goooooooola [22 segundo], Osasunaren goo-ola! Faltak arriskua bazuen!, Mateok berarentzat nahi zuen baloia, berarentzat bakarrik, eta ongi-ongi frogatu du falta jaurtitzaile bikaina dela! Eskuin aldetik, Cañizaresek ezin izan du deus ere egin; oso ongi ikusi du Mateok lekua, eta, horren ondorioz, Osasuna aurretik. Osasunak 1, Valentziak 0, sei minutu baino igaro ez direnean.

Krutzagaren hanka sartzea

EL SAIZ



- JUAN KRUZ: Harmailetan honako oihu hau entzuten dugun: «A por ellos, oe oe oe». Horixe da xedea, Valentziakoen kontra jotzea eta gola lortzea. Baina Cañizaresek lortu du baloia eskuratzea eta, gauzak horrela, oraingoz ez da golik izanen. Kontraerasoan Valentzia, Gaizka Mendieta eskuin hegaletik, areatik oso gertu, erdiraketa egin du... eta Osasunako atzelariak gola sartu du bere atean.
- IRATZ: Krutzaga izan dela uste dugu. Mendietaaren pasea urrundu nahi zuen eta... Valentziaren gola.
- JUAN KRUZ: Arestian aipatu dugu Krutzaga Sadar futbol zelaietan oso urdu ari zela jokatzeko, ez zuela asmatzen. Eta hortxe ikusi dugu kontzentrazio falta horrek zer ekarri duen, Nunoren atean sartutako gola. Nolanahi ere, esanen didazue ni baikoregia naizela, baina Osasuna oso ongi ikusten dut. Orain arte Valentziak ezer gutxi egin du. Zori-gaitzoko jokaldi batean etorri da gola. Nik uste dut denboraldi honetako minuturik onenak egiten ari dela Osasuna.
- IRATZ: Dudarik gabe, baikor izan behar dugu, Osasunak sartu ditue-eta bi golak.

eta guk gaztelaniazko eredu hori kopiatu dugu. Baina polita litzateke euskal hitzak ateratzea, euskal esamoldeak jokoari egokitzea. Akaso aurrerago atekoa atezainak ateko sakea egiten duelarik, Lakastak honakoa botatzen du beti: «Gora baloia, gora Iruñea, gora Osasuna, gora Nafarroa, gora Euskal Herria!». Irrati ereduaren sortzen ari dira.

Lakastak dioenez, oso eronka polita egiten zitzaien emankizunak eskaintzea. «Emankizuna egitea edozein esatarirentzat gauza polita da», komentatu

du. «Ederra da euskara menperatzeko gai izatea kontakizuna egin ahal izateko. Eta horri buelta ematea, eta umorea gehitzea, eta parodia pixka bat egitea guziok ttikitzen entzun ditugun futbol emankizunen gainean».

Emankizunetan gorabeherak izan dira hasiera batean bitarteko teknikoak ez zirelako txukunenak, baina bestela ere oso maila ona erakutsi dute Euskalerrria Irratiak. «Lehendabiziko esperientzia da, eta oso goraipagarria da gogotsu ari direnen lana, beren futbolzaletasuna eta profesionaltasuna erakusten», komentatu du irratiko zuzendari Mikel Bujandak. «Orain arte egin



JOXE LACALLE

Epalea madrildarra delako

- JUAN KRUZ: Jokoa da baloia Sadar futbol zelaietan.
- IRATZ: Mateok baloia gora; Armentano ari da baloia bila borrokan, eta, azkenean, jaurti duena Palacios izan da; kanpora. Eta orain Cañizaresek atera beharko du baloia.
- JUAN KRUZ: Erasoan Osasuna.
- IRATZ: Kontuz! Armentano bakarrik da. Jaso du baloia arearen barrenean, ezkerrean aurka, eta orain arte arrisku guzira Osasunak sartu du, eta aterantz egin diren jaurtiketa guziak gorritxoek egin dituzte. Ez da
- kexatzeko modukoa inondik inora ere.
- IRATZ: Presio handia egin behar da, batez ere aurreko minutuetan, gero, ongi daki-gunez, nekatu egiten zaizkigulako jokalaririk, larunbateko pisuak bere zama baitauka.
- JUAN KRUZ: Erasoan Osasuna.
- IRATZ: Kontuz! Armentano bakarrik da. Jaso du baloia arearen barrenean, ezkerrean aurka, eta orain arte arrisku guzira Osasunak sartu du, eta aterantz egin diren jaurtiketa guziak gorritxoek egin dituzte. Ez da

den ahalegina merezi izan du. Hala ere, ez dut ezkutatu: denboraldi hasieran nire zalantzak banituen. Emankizunaren genero horrek oraindik ere egungo irratigintzan baliorik ba ote duen galdeztzen diot neure buruari. Baina bistan da, halako gogo beroak daudenean eta Osasunaren jarraitzaile sutsuak dauden mundu batean, merezi duela».

→ Asier Azpilikueta

Joxemiel Bidador

Euskararen mitologia erratu batzuk

Gauza ezaguna dira euskararen etorkiei buruz historian barrena esan, idatzi eta barreiatu diren astakeria, burukeria arin eta ideia faltsuak; Tubalengandik hasita euskara gaztelaren dialekto egiteraino, euskararen etorkia Paradisuan jartzetik Atlantida mitikoan paratzera ausartzeraino.



Kontu horiek zaharrak diruditen arren, berriki arte eta gaur egun ere aldiro-aldi errepikatzen diren gauzak dira, eta, egia esateko, geure buruaz zertxobait trufa egiteko balio duten neurrian, neronek behintzat gustukoak ditut, gure hizkuntzaren umezurta-suna desdramatizatzen baitigute.

Bizente Agirre Gisasola

Eibarren 1829an jaioa eta Eibarren bertan jardun zuen medikua genuen. Azpimarratzekoak dira oso elgorriaren aurka garbitasun eta txerto kanpainen alde egin zituen ahaleginak. Alabaina, zerbaitengatik ospetsua, edo bederik ere zertxobait ezaguna baldin bada, horixe euskararen inguruan egin zituen lanengatik izan da. Izan ere, gure hizkuntzaren ikerketari eskaini zizkionak ez ziren makalak izan. Bere lanen fruituak *Euskal Erria* aldizkarian agertu ziren gutxiz gehien, 1882tik 1890era bitartean agerturiko hamaika artikuluetan, «Jose Gisasola» izenpean beti ere. Geroxeago ere, artikuluhorien guztien bilduma egin zuen —*Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y problema de la palabra*—, eta bere kultureko Eibarren ere hainbatendako sinbolikoa den 1898. urtean argitara atera zen. As-tarloari segitu zion orpo-z orpo, horretarako beranduegi bazen ere, eta horrek hainbat ikerlariren kritika zorrotzak erakarri zizkion, esate baterako Julio Cejador edo Unamunorenak, baina gauza jakina da arrazoi gutxi gorabehera zientifikoagoen azpian beste motatako eragile lurtarragoak bazeudela bi al-

deen arteko eztabaida honetan, politikoagoak. Bere garai-ko euskaltzaleen zirkuluetatik kanpo ez zen ibili; Bonaparte printzearen lagun hurkoa, beste hizkuntzalari aunitzekin ere posta harreman maratza izan zuen. Zoritzarrek, 36ko gerratean etxeko liburutegian gordetzen ziren liburu, gutun eta beste paper interesgarri asko desagertu ziren; beharrik, Bizente Agirre Gisolak ezin izan zuen huraxe ikusi, 1907az geroz zendua baitzen.

Fernandeztarrak

Euskararen abarora honen sekretuak kitzika turrik hurbildu zirenen artean Francisco Fernandez Gonzalez eta Juan Fernandez Amador de los Rios aita-emeak ere izan ziren. Lehenbizikoa Albaceten jaio zen, 1833an. Gaztelera eta arabiera hizkuntzetako katedratikoa izan zen Granadan eta estetikakoa Unibertsitate Zentralean; halaber, Historia, Zientzia Politiko, Arteder eta Gaztelaren Akademiako kidea genuen. Hain zuzen ere, Gaztelaren Akademiaren sartzeko

ra Amerikako hainbat hizkuntzekin konparatu ondoren, Euskal Herriko hizkuntza ariarrak baino lehenagokoa dela zioen. Eta areago: «Según mis propias averiguaciones ningún idioma ha ejercido una influencia tan marcada como los idiomas semíticos históricos con la inclusión del asirio y singularmente del fenicio y del caldeo, lenguaje popular de los israelitas después del destierro y cuya pronunciación parece haber sido la preferida por los vascos».

Semea Iruñeko Institutuaren historiako katedratikoa izan zen, baita Historiaren Akademiako kidea ere. Aitaren bide beretik segituz, euskararen eta kaldearen arteko harreman zertan zen azaltzen ahalegindu zen, eta horretarako tresna zatekeen *Diccionario vasco-caldáico-castellano* hasi zen argitara ematen, aldika, Iruñeko Aranbururenean, 1909an. Hala eta guztiz ere, gaiaren astunak, korapilatsuak eta diskutigarriak txipitu zuten liburu interesgarri



ogutzi predikuan, *La influencia de las lenguas y letras orientales en la cultura de los pueblos de la Península Ibérica* izenburuko hitzaldian, euska-

honen tamaina eta, sarrera luze baten ondoren, «a» letrarekin hasten diren sarrerak bai-zik ezin izan zituen agertu egileak.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Linterna eskuan, Carlosek argi ematen dio zine beltzari. • MIKEL SAIZ

Zinez eta minez

Kasualitate handia beharko luke izan gure gaurko protagonista Oscar Goya deitzeak. Carlos du izena. «Abizenik ez jarri, mesedez!». Eta zineman egiten du lan. Kamera bizkarran hartu ordez, linterna eskuan daraman horietakoa da. Zinema beltzari argi ematea da haren ardura nagusia. «Gehienak ez dira batere puntualak eta gero datoz komeriak». Komediak eta, sarritan, tragediak.

Trilogia batek osatzen du haren lana; arratsaldeko, iluntzeko eta gaueko emaldia. «Pelikula bat patxada ederrean ikusteko hobe duzu lehenengo sesiora etortzea, astelehen, astearte eta ostegunetan». Iruñean zinemazale amorratu asko dagoela uste du berak. «Batez ere, hiri tiki honetan, futbolaz gain ez baita kultur aukera handirik». Beraz, kontsumo zabaleko produktu artistikoa da zinema gure inguruan. Ez bakarrik artistikoa, baita gastronomikoa ere. «Krispeten kontua alde batera utzita, jende ugari afaria pres-tatuta ekartzen du etxetik: ogitartekoak, tuper-ak, zahatoa, pizzak, denetarik. Lehengoan, barraskiloen hondarrak aurkitu genituen lurtean». Ez hori bakarrik. Beste hainbat gauza ere uzten omen ditugu zinema aretoan. «Betaurrekoak, aterkiak, arropa, giltzak, karterak... eta

behin batean kondoi bat ere azaldu zen».

Dena den, filmen irudiek aukera paregabea eskaintzen digute, batez ere, eguneroko errealtate gordina ahazteko. Horregatik, zinema amets egiteko modu egokia dela esan ohi da. Carlos bat dator adierazpen horrekin. «Zenbait lo seko gelditzen da butakan; zurrunkak direla-eta esnatu egiten ditugu behin baino gehiagotan». Batzuetan, berriz, beste zarata batek iratzartzen ditu lotiak. «Gero eta gutxiago gertatzen da, baina oraindik ere telefono mugikorra itzaltzen ez duen ergel franko dago bazterretan». Teknologia kontuekin jarraituz, sarrerak erosteko bertsio orijinal eta berriak azaldu dizkigu gure lagunak. «Telefonoz edo ordenagailuaren bitartez aurretik egin daitezke erreserbak orain». Jakina den bezala, makina bat musika taldek euren diskoak Interneten bidez plazaratzen dituzte dagoeneko. «Pelikulekin hori gertatzea oso zaila da. Agian, epe luzera filmak sarean soilik ikusi ahal izanen ditugu. Baina, oraingoz, pantaila erraldoia ez da erraz desagertuko».

Laster, Carlosek beste urrats bat egingen du zinemaren unibertsoan. «Montxo Armendarizen pelikula berriaren estra modura agertuko naiz». The End.

Ziria

• Motxorrosolo •

Murietako geltokia

Goroldioa lotu zaio Murietako geltokiari. Asmoen erresuman helburu nagusi denak hamarkadetako isolamendua pairatzen du. Egunerokotasunetik ihes egin nahian errutinan murgiltzen gara. Ba ote da aterabiderik komunikabideek norabide bakarra hartu duten honetan?

Iñigo Petri

GURELURREKO PRESIDENTEA

«Natura salgai dago»



● MIKEL SAIZ

Iñigo Petri biologoa izendatu dute Gurelurreko presidente. Talde ekologistak hamargarren urteurrena beteko du urtarrilean. Petri elkarte horren proiektuen inguruan mintzatu zaigu eta Nafarroako Gobernuaren jarrera gogor kritikatu du.

GARINOAINEN HARTU GAITU Gurelurreko presidente berriak. Mugimendu ekologistak atzera egin duela dio, baina bera baikor dela gaineratu du. «Lanerako prest gaude Gurelurren».

■ **Gurelurreko presidente izendatu berri zaituzte, Marcelino Barberiak hamar urtez kargu hori bete ondoren.**

Hamar urte igaro ondoren, pentsatu genuen hainbat aldaketa egiteko garaia zela. Kargu aldaketa besterik ez da izan, hala ere; Marcelino Barberiak elkarte jarraitzen baitu. Gure asmoa, dena den, orain arteko lanean jarraitzea da.

■ **Zeintzuk dira orain esku artean dituzuen proiektu nagusiak?**

Hainbat gai nagusi ditugu; horietako bat haize errotak ezartzearena da. Ez gaude ados haize erroten parkeak jartzeko moduarekin. Bestetik, Arga ibaiaren alde ari gara lanean, ibaiaren inguruan egiten ari diren lanetan ez baitira natura errespetatzen ari. Nafarroan barrena beste hainbat proiektu ditugu; adibidez, Irunberrin duela bi urte martxan jarri zen

aerodromoaren kontra gaude, inguru hartan hegazti handi asko dagoelako eta arazoak dituzte hegazkinak direla eta. Bestalde, Orreagan duela bost urte zabaldu genuen hegaztien migrazio zentroa, batez ere hezkuntza lantzeko. 50.000 lagun igaro dira handik. Arguedasen ere estazio ornitologikoa prestatzen ari gara. Jarraitzen dugu, halaber, amiamoko eta mirotzen inguruko proiektuetan. Azken boladan gertatu diren arrain hiltzeak ere gogor salatu ditugu. Isurketa toxikoak ere gertatzen dira, eta ez bakarrik ibaietan; lur eremu kutsatuak nonahi agertzen ari dira. Nafarroako Gobernuak ez ditu legeak

..... ●
«Nafarroako Gobernuo Ingurumen Sailak ez du bere lana betetzen; hau da, ez du natura babesten. Nafarroako Gobernuo arduradunen kezka bakarra dirua da, eta diru hori berehala lortzea»
 ●

betearazten; alderantziz, enprekin akordioak sinatzen ditu gauzak ezkutatzeko asmoz. Ez du konponbide egokia bilatzen.

■ **Zuen proiektuak aurrera eramateko zer baliabide ekonomiko dituzue?**

Gure kabuz egiten dugu dena, azken hiruzpalau urteetan ez baitugu diru laguntzarik jaso. Nafarroako Gobernuarekin dugun harremana oso txarra da eta ez gaude ados diru laguntzak banatzeko duten sistemarekin. Laguntzak proiektu zehatzetarako ematen dituzte. Lehen, Ilundaingo fauna babesteko zentroa kudeatzen genuen, Gobernuarekin genuen akordioaren bidez, eta Miroz proiektua ere laguntza horren baitan zegoen. Ilundaingo zentrotik bota gintuzten eta gaia epaitegietan dago, ez baitugu uste egin dutena bidezkoa denik. Geure kabuz jarraitu dugu Miroz proiektua martxan jartzen. Gure diru iturria, beraz, bazkideen eta boluntarioen eskutik datozen laguntzak dira. Haien rola nabarmendu nahi dugu, funtsezkoak baitira.

■ **Gurelur bezalako taldeek**

soslai

Gurelur talde ekologista sortu zuen taldeko kide izan zen Iñigo Petri. Biologoa da eta bere ibilbidea beti mugimendu ekologistari lotua egon da.

Duela hamar urte sortu zen, Iruñean, Gurelur talde ekologista, natura eta batez ere hegaztiak babesteko asmoz. Egun, 450 bazkide inguru ditu elkarteak, eta lanean jarraitzen du.

Urtarrilean beteko du Gurelurreko urteurrena, eta, hori ospatzeko, hitzaldi zikloa eta irteerak antolatze asmoa dute elkarte kideek. Orreagako migrazio zentroan egiten duten lana eta laster Arguedasen jarriko duten estazio ornitologikoa nabarmendu ditu Petrik

■ **ez dute independentzia galtzen halako diru laguntzen menpe lan egiten dutenean?**

Egia da hemen Nafarroako Gobernuak horrela jokatu duela, eta laguntzak jaso dituzten hainbat talde independentzia galdu dutela. Ez luke horrela izan behar, beste herrialde batzuetan erakunde publikoek laguntza ematen dute taldeak nahi duen proiektua egin dezan, baina Nafarroan hori ez da gertatzen. Guk, hala ere, askatasun berarekin jokatu dugu beti. Azken lau urteotan gauzak asko aldatu dira eta

askatasun hori galtzeko arriskua ikusi genuen. Horregatik jo dugu beste bidetik.

■ **Naturaren inguruko gaie-tan Nafarroako Gobernuak duen jarrerarekin, beraz, ez zaudete ados?**

Ingurumen Sailak ez du bere lana betetzen. Eta zein da bere lana? Naturaren babesa bermatzea. Hori, egun, ez da betetzen, eta azken urteotan okerrera egin du egoerak. Gobernuo arduradunen kezka bakarra dirua da, eta diru hori berehala lortzea. Gu prest gaude Nafarroako Gobernuarekin edo ehiztariekin edo edozein taldekin hitz eta lan egiteko; badakite, baina orain komunikaziorik ez dago, haiek ez dutelako nahi. Duela 30 urteko egoerara itzultzen ari gara, eta natura salgai dago.

■ **Eta gizartearen jarrerari zer deritozue? Nolako izan da mugimendu ekologistaren garapena Nafarroan?**

Euskal Herri osoan eta leku guztietan bezala, atzera egin du mugimendu ekologistak, nabarmen gainera. Egia da nolabaiteko kontzientzia piztu dela gizartean, baina horren ondorioak ez dira nabaritzen. Beti gutxi izan gara lanean, eta jendea nekatu egin da. Hala ere, gu baikor gara eta egoerak hobera egingen duela uste dugu. Guk orain arte bezala lanean jarraituko dugu.

→ **Edurne Elizondo**

NOSKI JATOR
ERTAROAN
GORA GARAZI!



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Ferriak gainbeheran

J oan den ortziralean izan ziren Elizondoko ferriak, Nafarroako mendialdean udazken partean egiten diren artean lehendabizikoak. Gero etorriko dira Doneztebe eta Lesakakoak, azaroaren azken ortzegunean. Azken horiek Bortzirietakoak, bortzehun urtetik goiti omen dituzte. Bertzeek ere ez dira oraintxeokak. Baina gaur egun, zer gelditzen zaigu orduko feria egunetatik, edo duela berrogeita hamar urtekoetatik? Deus ere ez erranen nuke, ja, fisik ez...

Baserritarrek etxeko aziendeta eta barazkiak herrira eramane eta bertze baserri edo herrietatik etorritakoekin trukatzeara zen ferien helburua. Etxera guardasol berriarekin edo baratxuri korda lepagainean zutela itzultzea zen arruntea. Negu gogorrerako prestatzeko, jaxkiak eta behar-beharrezkoak ziren produktuak biltzeko egun aproposa zen feria. Eta orain? Saltzaile anbulanteen topagunea dira, erloju eta tramankulu bitxiak saltzen dituzten paisen bilgune, Peruko lamen ilearekin (?) egindako milaka jertseren azoka... Elizondoko ordenagailuak ere salgai omen zeuden. Luze gabe, ferriak beraiek Internetez etxetik mugitu gabe ikusteko modua izanen dugu, ez dudarik izan.

Garai bateko ferien sinbologiaren zati bat bertzerik ez zaigu gelditzen, aziendaren bat (kasik inoiz ez da saltzen), Eguberrietako turroiak eta egutegi zaragozana... Gure inguruko baserritarrei ez die onura handirik sortzen ferriak. Herriko dendari eta merkatariei oraindik guttiago, ferien sukarragatik edo, beraien dendan merkeagoa eta hobea izan ohi den produktua jendeak itsu-itsuan nola erosten duen ikusten baitute. Seguraski, Herriko Etxeak dira feria mantentzen interesatuenak, ikustekoa baitira saltzaileek beraien postua paratzeagatik metro koadro bakoitzeko ordaindu beharreko dirutzak. Beti kexu azaltzen dira, lekua garesti dela, gutti saltzen dela, baina hurrengo urtean itzultzen dira, zerbaitegatik izanen da.

Kontuak kontu, garai bateko ferietatik gutti gelditzen zaigu eta pena da.

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruizun:** Folk ametsetan zikloaren baitan, gaur Euritan Blai taldeak joko du, bihar Anna Lunak (Brasil) eta etzi D'Astura taldeak (Asturias). Kontzertu guztiak kultur etxean izanen dira, 20:00etan.
- **Barañain:** Leihotikan, El Trono de Judas eta Kop taldeek Alaitz ikastetxean joko dute gaur, 22:00etan.
- **Zangoza:** Grey Souls taldeak kontzertua emanen du gaur Dos Caballos tabernan, 23:00etatik aurrera.
- **Iruñea:** La Banda del Muñon taldea Cotton Club tabernan ariko da gaur, gaueko hamabietatik aurrera.
- **Barañain:** Funky jaia izanen da bihar Alaitz ikastetxean, Violadores del Verso taldearekin, 22:00etatik aurrera.
- **Lizarra:** Zain eta Piztiak taldeek gaztetxean joko dute bihar, 23:00etan.
- **Iruñea:** Ruper Ordorikak Gaia-rrerantz antzokian kantatuko du asteartean, 20:00etan.

ANTZERKIA

- **Etxarri-Aranatz:** Bihar, larunbatarekin, Trokolo taldeak *Tantz-tanta* haurrentzako antzezlan eskainiko du kultur etxean, 18:00etan.

HITZALDIAK

- **Bera:** Castillo Suarez idazleak *Mugarri estaliak* bere liburu berria aurkeztuko du gaur, liburutegian, 19:30ean.
- **Zangoza:** Juan Cruz Labeaga historialaria Zangozako zilargileen inguruan mintzatuko da gaur, 20:15ean, kultur etxean.
- **Iruñea:** Asteartean, 20:00etan, Pragako goi bileran izan ziren nafarrek, Zaldiko Maldikon, diapositiba emanaldia eta hitzaldia eskainiko dute globalizazioaren inguruan.

ERAKUSKETAK

- **Lizarra:** Pedro Salaberrri margolariaren lanen erakusketa zabalak ikus daiteke Gustavo Maeztu museoa asteazkena arte, astegunetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta jaiegunetan 11:00etatik 13:30etara.
- **Burlata:** Elena Oliva margolariaren lanak hilaren 12a arte egongo dira ikusgai, Joakin Azkarate karrikako kultur aretoan.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Asteartean akituko da Egile Berrientzako XV. Literatur lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Olerki, Narrazio Labur, Bertsopaper zein Komiki sailetan hiru sari banatuko dira, 200.000, 120.000 eta 60.000 pezetakoak.
- **Atarrabia:** Besta Jira V. Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea azaroaren 11n bukatuko da. Parte-hartzaileek, 16 urte baino gehiago izateaz ba-

tera, Atarrabian jaiok izan behar dute, edo bertan bizi behar dute. Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan izan daitezke. Lanen gaia libre da. Informazio gehiago, Atarrabiako Udalean.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bihar, ohi denez, *Arakusoen Azoka Ttikia* eginen dute, goizeko hamarretatik aurrera, San Jose plazan. Bertan antigoaleko eta bigarren eskuko gauzak saldu edo trukatzeko ahal dira.

Hautagaia

Maria Gracia Iribarren Ribas: 38 urte, Tuterakoa eta hiru seme-alaben ama. PSNko Tuterako batzorde lokaleko arduraduna da eta, hala ere, Argia ikastolara eramane dituen haurrak. Eta PSNko idazkari nagusia izan nahi du. Bihar eta etzi Iruñean eginen duten 7. Biltzarrean Lizarbe eta Iribarren nor baino nor gehiago ariko dira ordezkari gehiengoaren botoak erdiesteko. Iribarrenen aburuz, PSNn egun «gidaritzaren falta dago eta proiektu sozialistak ez du definiziorik». Iribarrenen atzetik Federico Tajadura, Lola Eguren eta Joaquin Pascal daude, besteak beste. Baina Jose Luiz Uriz, berriz, Lizarbek jarraitzearen alde agertu da. Ba ote dago inor hau ulertuko duenik? Oposizioa egiten ez duen oposizioko lehen alderdian, Lizarbe haizebelatsaren aitzinean proiektu definitua nahi duen hautagai definitua agertu da. Irudi lausoan zaila da argitasuna aurkitzea.



• MIKEL SAIZ